

L.H. 1.zikloa

Gorka Madariaga Gende

"Ipuinak idaztea gustatuko litzaidake"

# "Basoko monjea"

## Basoko Monjea

Bazen behin Txinako herritxo batean lagun bi. Shun eta Shin ziren. Egun batetan basora joan ziren masustrak hartzera. Bueltaka hasi ziren eta azkenean galdu egin ziren. Orduan etxe batera heldu ziren. Etxe horretan monje bat bizi zen. Monjeak lagun nahi zien eta etxean zeuzkan kanpaiak jotzen hasi zen. Horrela Shun eta Shinen gurasoak haien bila joan ziren. Eskerrak eman zizkioten monjeari eta betiko lagunak izan ziren.



Gorka Madariaga Naia Mikel Alain

Aimar Aintzane Monika Olatz

Julen Manex Alex Aimar I. Jokin



L.H. 1.zikloa

Maialen Madariaga Gezuraga

"Ikastolako arlo guztiak atsegin ditut"

Peio Treceño Méndez

"Nagusitan futbolaria izatea gustatuko litzaidake"

# "Orka eta itsas-txakurra"

Orka eta itsas-txakurra.

Behin batean bazen irla txiki batean orka bat, Tiput deitzen zena. Janari bila zebilela itsas-txakur bat ikusi zuen baina honek honela esan zion:

-Ez jan, mesedez, txikiegia naiz. Gainera ez daukat ez amarik ez aitarik.

-Egon lasai, hemendik aurrera ni izango naiz zure aita eta zure ama, erantzun zion Tiputek, bere gosea ahaztu eta gero.



Tiputek Piti izena jarri zion itsas-txakurrari. Egun pare bat beranduago beste orka bat agertu zen, Piti jateko asmoarekin, baina Tiputek hauxe esan zion:

-utzi trankil nire umea, itsas-txakurrak ez dira jateko, gu bezalako animaliak dira eta.

-Beno, horrela bada beste leku batetik topatu behar dut janaria, erantzun zuen beste orkak.

orkak ehiztari trebeak dira itsasoan eta lehen itsas-txakurrak harrapatzen zituzten baina Piti Tipurekin dagoenetik beste janariaren bila joaten dira.

Tipu eta Piti oso pozik bizi dira elkarrekin.





L.H. 2.zikloa

Aitor Jauregi Gezuraga

"Futbola, judoa, igeriketa eta animaliak ditut gustuko"

# "Dinosauriodun mutila"

## DINOSAURIODUN MUTILA

Bazen behin herri txiki batean Txomin izeneko mutil bat, robotak asko gustatzen zitzaizkiona. Behin batean telebistako albisteetan ikusi zuen, robot berri bat atera zutela. Orduan denbora makina bat egitea bururatu zitzaion etorkizunera joateko roboten mundua ezagutzeko asmoz.

Garajera joan zen korrika makina egiteko tramankuluen bila. Pieza bat faltatzen zitzaion baina Txominek inportantzirik ez zuela pentsatu zuen. Amaitutakoan makinan sartu zen eta bat, bi, hiru... Plof!, etorkizunera bidaiatu beharrean iraganera bidaiatu zuen. Bat-batean dinosaurioak korrika hasi ziren eta Txominek bera harrapatzera zihoazela pentsatu zuen eta zoro baten moduan korrika hasi zen bera ere. Atzerantz begiratu zuenean, sumendia piztu zela ikusi zuen eta horregatik hasi ziren korrika dinosaurioak.



Beldurtuta zegoen eta ezin zuen makina aurkitu.

Azkenean, palmondo baten azpian topatu zuen. Tximista bezala sartu zen makinara, eta berarekin batera dinosaurio kume bat sartu zen. Etxera itzuli zenean dinosaurioa bere maskotatzat hartu zuen. Txominek roboten eta tramankuluen mundua betirako ahaztu zuen. Eta... eta baran eta ez baran sar dadila Kalabazan eta irten dadila Gernikako plazan.





Ainitze Sendagorta Izagirre

"Lagunekin jolastea gustatzen zait gehien"

# "Itsaso eta izurdea"

## Itsaso eta izurdea

Bazen behin Itsaso izeneko neska bat. Ilea luzea eta gaztaina kolorekoa zuen. Begi ilunak eta betile luzeak zituen. Zortzi urteko neska honi hondartzara joatea gustatzen zitzaion. Egun batean hondartzara joan zen. Hondartzan bainatzen zegoenean izurde bat ikusi zuen. Apurka-apurka izurdea Itsasorengana hurbildu zen.

Neska beldurtu egin zen, orduan izurdea hitzegiten hasi zitzaion:

- Kaixo lagun!. Nahi al duzu nirekin etorri?

Bat-batean Itsasori beldurra kendu zitzaion eta lasai-lasai erantzun zion:

- Bai, nahi dut!, baina ez dakit igeri egiten.

Orduan izurdeak bere bizkarra eskaini zion, bere bizilekua erakutsi zion eta Itsasori asko gustatu zitzaion.

Itsaso bere etxera itzuli zen.

Hurrengo egunean merkk berriro hondartzara joan zen.

Uretan sartu zen eta bat-batean izurde bihurtu zen. Horrela lagun handiak egin ziren Itsaso eta izurdea.

Beste egun batean saltoakk ematen ari zirela, marrazo bat agertu zen. Marrazoak Itsaso bere kolnazulora eraman zuen derrigortuta. Izurde laguna konturatzean, marrazoari buztanarekin kolpeak ematen hasi zen alde eragiteko. Orduan izurdeak Itsaso salbatu zuen etsaiarengandik.

Azkenean poz-pozik bizi izan ziren eta batek laguntza behar izaten zuenean besteak lagundu egiten zion.

Ainitze Sendagorta





Maria Amezaga Velez

"Dantza egitea gustatzen zait eta handitan arkitektoa izatea gustatuko litzaidake"

# "Oier baernetegian"

## Oier barnetegian

Bazen behin, Oier izeneko mutil koxkorra, beste neska-mutilengandik aparteko zena, haurtzarotik barnetegi batean bizi zelako. Itxuraz dotore-dotorea eta izaeraz isil-isila, barnetegiko arauak zorrotzak zirenez, esaneko izan behar 9 urteko mutikoak.

Egun hodeitsu batean, jolastokian bere lagunekin jolasten zegoela, Anek, bere lagun mina zenak, esan zion:

-Laster asteburua izango denez, joango zara zeure gurasoekin asteburu pasan ezta?

Bat-batean hori entzutean, ozenki, buru makur esan zuen:

-Ez! -Ezinezkoa da! Nire gurasoak ez daude nirekin, hilda daude!

Berehala ziztu biziaz alde egin zuen baster batera, negar malkoak dariola.



Lasaitu zenean, logelara igo eta gurasoen argazkia eskuartean harturik

galdetu zion bere buruari:
-Zergatik utzi ninduzuen bakar-bakarrik...?

Eguerdiko ordu bata zen. Txirrin! Txirrinak jo zuenean. Bazkaltzeko ordua zen. Dena ahazturik jatera joan zen

Urriaren 23a, larunbata, Oier bakarrik geratu zen barnetegian, bere andereño Mattalenekin, barnetegiko kide guztiak gurasoekin zeudelako.

-Andereño bakarrik nago, nire gurasoak hilda daude eta lagun guztiak etxean daude! -esan zion Oierrek.

-Ez kezkatu Oiertxo! -laztandu zion Mattalenek, bere esku goxoarekin.

-Nik txikitan zeudelako bizimodua neukan, gainera umezurztegian hazitakoa naiz.

Orduan, zergatik ez duzu lan egiten leku alai, argi batean, barnetegi triste, ilun batean egin beharrean? -Oierrek.

-Ez laztana. Hori zure iritzia da. Nire zaletasuna besteei laguntzea da. Hau da, etxe hau leku apartekoa da laguntzeko, elkarrekin bizi izateko.

Hori entzutean, ezpainetan irribarretxoa nabaritu zitzaion.

Urriaren 25a, astelehena, egun pozgarria

Oierrentzat. Goizeko 9ak aldera, Kaztetxeko ate nagusitik bikote bat sartu zen momentua, Oierren argazkiko bikotea. Ene! Nire gurasoak! Baina... Ezinezkoa da!

Hirurok elkarturik aitak azaldu zion amona Josepak 2 urte zituenean hartu eta berarekin eraman zuela. Gainera, ez zuen onartzen Oier mutil dotorea euren semea izatea eta horregaitik esaten zion bere gurasoak hilda zeudela.

Hura bai zela amona maltzurra!...

Ordutik aurrera, Oierrek barnetegia utzi eta bere gurasoekin zoriontsu eta alaitsu bizi izan zen.





L.H. 2.zikloa

Ibon Etxebarria Salterain

"Lagunekin futbolera jolastea gustatzen zait. Baita ere marrazkiak egitea"

## "Jon eta aztia"

# JON ETA AZTIA

Bazen behin mutil bat Jon deitzen zena. Ez zuen ez etxerik ez gurasorik.

Egun batean mendi batera igo eta kobazulo bat aurkitu zuen. Han, kobazuloan azti bat aurkitu zuen eta esan zion:

-Zuk lagunduko didazu etxe bat egiten?

Eta erantzun zion aztiak:

-Bai, baina hiru desio eskatu behar dizkidazu eta sei egun barru lagunduko dizut.



Orduan Jonținditik jaitsi eta kalean pentsatzen eta pentsatzen aritu zenzer egingo zuen sei egun horitan. Lehenengo egunean mendira paseatzera joan zen. Bigarren egunean ibaiera arrainak harrapatzen. Hirugarren egunean kalera eta hemen bi lagun egin zituen: Asier eta Beñat. Asier eta Beñat anaiak ziren.

Laugarren egunean bere lagun beriekin geratu zen. Bosgarren egunean bere lagun beriekin eskolara joan zen. Beretzat dena berria zen eta oso ondo pasatu zuen. Seigarren egunean Asierrek eta Beñatek esan zien nahi bazuen beraien etxean bizi. Jonek baietz erantzun zien.

Sei egunak pasatu eta Jon berriro mendira joan zen. Astiak esan zion orain ahal dituela hiru desio eskatu. Baina Jonek esan zion orain desiorik ez dituela behar, etxea eta lagunak ere lortu dituelako.

Jonentzako, lagunak dira munduko altxorrik hoberena.

Ilon Etxebarria Salterain



L.H. 2.zikloa

Lierni Gregorio Zabala

“Irakurtzea eta lagunekin egotea gustatzen zait”

# “Mirrotxan magoa”

## MIRROTXAN MAGOA

Bazen behin Mirrotxan izeneko mago bat, Magiaren munduan bizi zena. Arazo larri bat zuen, oso larria. Ez zekien magiarik egiten. Orduan, horren ondorioz biztanlee guztiek barre egiten zioten.

Bera, barre egiten zioten arren, ez zen triste bizi, kontrakoa, pozik bizi zen. Bera bizi zen etxea oso zaharra zen baina barrutik magikoa zen. Mirrotxanek magiazko liburu bat zuen asko maite zuena. Egunero irakurtzen zuen ohera joan aurretik. Etxea ere saiatzen zen Mirrotxani magia erakusten baina... alperrik.



Egun batean Mirrotxan atsekabeturik jeiki zen. Etxeak horrela ikusi zuenez galdetu zion:

- Aizu, Mirrotxan, zergaitik zaude atsekabetuta?

Orduan Mirrotxanek erantzun zion:

- Ez dudalako inoiz ere ez, magia egiten ikasiko!

Orduan etxeak esan zion:

- Lasaitu, liburua eta ni saiatuko gara zuri egunero magia erakusten.



Orduan Mirrotxcan lasaitu egin zen eta atsekabea joan zitzaion.

Arratsaldean hasi ziren etxea eta liburua Mirrotxcani magia erakusten.

Lehenengo pausua hitz magikoak ikastea zen, honela ziren: Baga, biga, higa, la, li, pum!

Eta konjuru hori desegiteko hitzak alderantziz esan behar ziren. Probatu zuenean... Txas! Etxea desagertu egin zen eta alderantziz esan zituenean... Txas! Etxea lengora itzuli egin zen. Hori izan zen ikasi zuen lehenengo trukoa. Hortik aurrera egunero truko berri-berriak ikasten aritzen zen.

Halako egun batean truko guztiak ikasi zituenean poz-pozik jarri zen. Eta handik aurrera biztanleek ez zioten barre egiten eta oso gustura sentitzen zen.

Azkenean Magika izeneko empresa batek kontratatu egin zuen. Mirrotxcan poz-pozik geratu zen.

Handik aurrera Mirrotxcanek magia ekitaldiak egiten zituen herriz-herri eta poz-pozik bizi izan zen.



Lierni Gregorio 4ºF



L.H. 2.zikloa


Nile Ansotegi

"Saskibaloia gustuko dut"


# "Oiloen sekretua"

"Saskibaloia gustuko dut"

Oiloen sekretua

Baziren behin bi neba-arreba. Mutila Mikel deitzen zen eta neska Ane. Egun batean aitak eta amak bidaia bat egin behar zutenez, Mikel eta Ane, Arantzazun bizi zen amonarenera joan behar izan ziren. Autobusean zihoazela Arantzazurantz, euren ondoan jarrita zegoen agurearengan jarri zuen arreta Mikelek. Bromak egitea gustatzen zitzaion eta oraingoan gizon zaharraren kontura ondo pasatzea pentsatu zuen. Agurea lo zegoela betaurrekoak kendu eta esnegaia zikindu zizkion. Mikelek pentsatu zuen gizona esnatzen zenean dena zuria ikusiko zuela eta ikaragarrizko sustoa hartuko zuela. Baina ez zuen aukerarik izan ikusteko hurrengo geltokian jaitsi behar ziren-eta.



Laster batean heldu ziren amonaren etxera . Baserri zahar bat zen . Han aurkitu zuten amona . Besarkada handi bat eman zien. Pastel bat egiteko gogea zuen amonak baina ez zeukanez arrautzarik , oilategira joateko eskatu zien Mikel eta Aneri . Bidea oilategira hurbildu zenean musika hotsa entzun zuten . Lehiotik begiratu eta konturatu ziren oilo-festa ospatzen ari zirela. Karaokea egiten ari ziren . Mikelek , harrituta , bideo-kamera atera zuen motxilatik.

Momentu hartan amonak deitu zien :

- Mugitu neska mutilak , arrautzak behar ditut. Martxa honetan arrautzak barik , tartak ekarriko dizkidazue .

- Bai oraintxe goaz amona. - erantzun zioten ilobek.

Oilategira sartu ziren grabatzeko asmoz, baina han ez zegoen ezer berezirik . Oiloak arrautzak erruten zeuden mantso-mantso eta isil-isilik .

Mikelek eta Anek ezin zuten sinetsi ikusten ari zirena. Zelan gertatu zen aldaketa hori hain arin? Ez zekiten.

Baina amonak arrautzak behar zituenez, hiru haurrak eta oilategitik atera ziren.

Sukaldera sartu zirenean amonari kontatu zioten gertatutakoa. Baina amonak barrezka honako hau erantzun zien:

- Mikel eta Ane, zuek ez dakizue nolakoak diren nire oiloak. Arrautzak erruten primerakoak dira, baina baita kantatzen ere. Ia-ia profesionalak dira eta laster ETB-ko "Oh Happy Day" programara joango dira.

Mikel eta Ane gorri-gorri jarri ziren baina segituan barrezka hasi ziren. Ondo pasatuko zuten amonaren etxean.

Nile Ansotegi





L.H. 2.zikloa

Ander Aranas Bermeoslo
Gorka Gorrindo Heras

"Gu biok futbolari bikainak izan garela amesten dugu"

# "Makila magikoa"



## MAKILA MAGIKOA

Bagiren behin bi mutil Jon eta Mikel deitzen zirenak. Arratsalde batean ikastolako lan bat egin behar zuten, oso lan astuna zen eta andereinoak biek batera egiteko agindu zien. Gaia Egiptori buruzkoa zen. Ez zekiten nondik hasi. Mikelek esan zuen, ea zergaitik ez zuten begiratzen interneten! Informazio ugaria aurkitu zuten: Piramideak, Faraoiak eta Sarkofagoak. Piramide ospetsuenak hiru ziren: Keops, Kefren eta Mikerinos. Jon eta Mikel aspertzen hasi ziren horrenbeste Faraoi, Piramide eta Sarkofagoekin. Halako batean testu interesgarri bat irakurri zuten; Kefreneko piramidean sarkofago bat zegoen eta sarkofagoaren barruan makila magiko bat. "Makila hartu behar dugu" -esan zuten-, baina ez zekiten nola. -Txori bihurtuko bagina?; hegan joango ginateke Egiptora! eta makila magikoa hartu; -esan zuten biek batera.-

Lana egiten nekatu egin ginen eta lo gelditu ginen.
Begiak ireki genituenerako, txori bihurtu ginen. Eta
hegan eta hegan hasi ginen eta Egiptoraino ailegatu
ginen. Egiptora iritsi ginenean piramideak bilatzen
hasi ginen eta Nilo ibaian gora egin genuen;
han piramideak aurkitu genituen. Halako batean
makila zegoen piramidea aurkitu genuen. Zirrikitu
batetik sartu eta sarkofagoa aurkitu genuen.
Biok batera indarra egin eta ireki genuen.
Makila magikoa mokoan hartu eta alde egin
genuen desertutik Nilo zeharkatuz.
Txikiak eta ohiuak entzun genituen animalienak
(elefante eta krokodiloak). Esan genien animaliak:
-Makila hori gurea da. Gure altxorra da, makilarik
gabe desagertu egingo gara.
Ez gara gero izango!
Orduan Jonek eta Mikelek makila
la indarra bota genuen eta makilarekin batera beraiek ere urertara
erori ginen. Ez genekien igeri
egiten eta itotzen hasi ginen.
Negarrez hasi ginen. Jonen
amak galdetu zien ea zergatik
hasi ginen negarrez. Jonek eta
Mikelek erantzun zioten:
-Lo geratu gara, amets bat izan dugu eta itotzen

